

**talaia**  
gogoetarako gunea

2. alea  
2017ko  
urtarrila

# Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistak

Yayo Herrero • Enric Toussaint • Mario Zubiaga  
Juan Hernandez Zubizarreta • Bea Martxueta

## Erronka ekosozialen aurrean alternatibak

# Kapitalismoa desbinkulatu egin da herritik



**T**alaiaren 2.alea duzu esku artean. Gogoetarako gunea da guretzat Talaia. Argitalpen bat ez ezik, hausnarke-ta eta eztabaida esparru fisiko ere bada. LAB-eko Batzorde Sozioekonomikoak eta Ipar Hegoa Fundazioak gogoeta eta formazio politiko eta sozialerako egiten dizugun eskaintza izan nahi du eta tarte-ka halako argitalpenak izango dituzue eskura, baina baita mintegiak eta elkar-trukerako espazio fisikoak ere.

Irailaren amaieran Bilbon III. Nazioar-teko Topaketa Ekosozialistak burutu ziren. Topaketa hauen antolakuntzan egon da LAB, beste hainbat eragile sindikal, politiko eta sozialekin batera. Talaia honetan, Topaketa horietan izan diren gogoetetako batzuk hurbildu nahi dizkizuegu, interesgarriak eta ba-liagarriak direlakoan. Esan gabe doa, ezin izan ditugula hemen nahiko geni-tuzkeen guztiak jaso eta zabaldu. Horre-

gatik, [www.iparhegoa.org](http://www.iparhegoa.org) webgunean hauek berak eta beste batzuk zuen es-kura jartzen ahaleginduko gara.

Talaiaren 2. ale honetan Yayo He-rreroen gogoeta jaso dugu (honakoa laburpen moduko bat da, bere inter-bentzio osoa webgunean irakur de-zakezularik). Bizitzaren jasagarritasuna ardatz duen gogoeta proposatu digu Herreroek, bereziki trantsizio energetikoa aztertuz, baina Kapital – bizitza gatazka-ren ikuspegi osoa kontuan hartuz. Eric Toussaintek, bizi dugun egoera poli-tikoari begiratu dio, Grezian eman di-ren gertakarien haritik, ateratzen dituen ondorio eta ikasgaiak ekarri dizkigularik. Juan Hernandez Zubizarretak mundua-ren antolaketa neoliberalaren arkitektu-ra azaldu digu eta Mario Zubiagak Eus-kal Herrian kokatu ditu eraldaketarako aukera posibleen argazkia, erabakitze-ko eskubide eta ariketaren baitan.

**L**os III. Encuentros Ecosocialistas Internacionales centran este nuevo número de Talaia. La Fundación Ipar Hegoa y la Comisión Socioeconómica de LAB ofrecemos este espacio de reflexión y formación política y social. En este caso, ante la importancia de los encuentros, y siendo conscientes de la dificultad de reflejar en una modesta publicación la cantidad y variedad de análisis y reflexiones que se pusieron sobre la mesa, hemos decidido dedicar la publicación a reflejar algunas de las que más interés nos han generado. Yayo Herrero, Eric Toussaint, Juan Hernández, Mario Zubiaga y Bea Martxueta son los protagonistas de este Talaia que te presentamos. En nuestra web, [www.iparhegoa.org](http://www.iparhegoa.org), además de leer las versiones íntegras, tendrás acceso a algunos otros contenidos extra.



Aldizkari honen edukiak Creative Commons-Aitortu-Partekatu berdin lizentzia baten pean daude.

Lizentzia honekin, edukiak kopiatu, banatu eta erakutsi zein lan eratorriak egin ahal izango dituzu, beti ere ondorengo balditzak betez:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Edukiaren aldaketarik egiten baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu eta hau banatzekotan, honako lizen-tzia honen baldintza beretan egin beharko duzu.

Los contenidos de esta publicación están bajo licencia Creative Commons - Reconocimiento - Compartir igual.

Con esta licencia eres libre de compartir, copiar y redistribuir el material así como de crear trabajos adaptados, siempre bajo las siguientes condiciones:

- Debes reconocer adecuadamente la autoría.
- Si creas un trabajo derivado, debes difundir las contri-buciones bajo la misma licencia que el original.

3



Yayo Herrero

7



Eric Toussaint

11



Mario Zubiaga

14



Juan Hernandez Zubizarreta

17



Bea Martxueta

REFLEXIONES SOBRE EL CAMBIO DEL MODELO PRODUCTIVO.  
ELEMENTOS DE PARTIDA QUE OBLIGAN A PENSAR EN UN CAMBIO DE MODELO PRODUCTIVO  
Y QUE ADEMÁS, NOS OBLIGAN A PENSAR QUE ES URGENTE HACERLO.

# Trabajos y modelos productivos en la crisis sistémica



Yayo Herrero

IPES elkartea CC BY-NC

**E**l marco, es el de la crisis global. Una crisis global que viene manifestada por el hecho de tener un modelo económico, hegemónico, político y también cultural que se desarrolla de espaldas a las bases materiales que sostienen la vida. Es decir, es un modelo, que pretende crecer de forma ilimitada sobre una base física, que sin embargo, sí que tiene límites. Y, esto, marca una serie de tensiones, de contradicciones importantes, que se han terminado convirtiendo, en una crisis global ecológica.

Pero, además hay otras contradicciones y, las contradicciones vienen dadas por el hecho de que además vivimos en

**YAYO HERRERO** es Antropóloga, Educadora Social e Ingeniera Técnica Agrícola; Directora General de FUHEM; profesora-colaboradora de la Cátedra Unesco de Educación Ambiental y Desarrollo Sostenible (UNED); miembro del consejo editorial de Hegoa y del consejo de redacción de Papeles. Fue Coordinadora Confederal de Ecologistas en Acción entre 2005 y 2014, organización de la que sigue formando parte.

sociedades patriarcales, que tienen una forma de división sexual del trabajo, y, tienen una serie de convicciones y de mitos sobre lo que somos las personas, que también hace que estemos en contradicción con otra parte de las bases materiales que sostienen la vida. De ambas contradicciones surgen enormes violencias y, enormes injusticias, que vamos a tratar de desgranar muy sintéticamente.

En el plano ecológico.- En otros ejes de trabajo de estos III Encuentros Ecosocialistas, nos hemos encontrado con que estamos atravesando una profundísima crisis de energía y materiales. La


humanidad va a tener que vivir globalmente con menos energía. Y, además está abocada a vivir con energía que proceda de fuentes renovables. Aquí, enlazamos con la crisis de materiales. Para poder transitar a un modelo basado en renovables, necesitamos construir una enorme cantidad de aerogeneradores, de placas solares y de infraestructuras que necesitan minerales de la corteza terrestre que también son finitos y que también algunos de ellos tienen sus picos de extracción próximos. Es decir, de seguir con este modelo material, puede que llegue un momento en el que sea físicamente imposible realizar una transición a un modelo energético basado en renovables que sea capaz de cubrir las necesidades de las mayorías sociales.

Por tanto, la crisis de energía y materiales, pone en jaque el actual modelo productivo que ya de por sí era injusto. Pero es que además, lo hace inviable físicamente en el tiempo.

Otro elemento central en el que no me voy a detener mucho, es el del cambio climático. El cambio climático supone un riesgo enorme para las poblaciones, para las poblaciones humanas con alteraciones de la polinización, es decir reproducción de las plantas; alteraciones sobre la fotosíntesis y, tengamos en cuenta que a la humanidad lo único que le separa de su propia extinción es un año sin cosecha, es que sin fotosíntesis no hay vida.

Por tanto, el cambio de modelo energético, el cambio de modelo productivo, va a ser sí o sí, porque lo van a imponer los límites físicos. Lo que está en juego, es cómo es y, para eso, la correlación de fuerza y, el ejercicio del poder que haya, es absolutamente central.

Podríamos haber pensado, que al menos tanto destrozo de la naturaleza ha traído un enorme bienestar. Y, lo que



“Una crisis global que viene manifestada por el hecho de tener un modelo económico, hegemónico, político y también cultural que se desarrolla de espaldas a las bases materiales que sostienen la vida. Es decir, es un modelo, que pretende crecer de forma ilimitada sobre una base física, que sin embargo, sí que tiene límites”

vemos es que ha ido profundizando en las desigualdades en todos los ejes de dominación.

De primeras, para construirlo en Europa y, en los sectores ricos, fue necesario saquear y expoliar en procesos coloniales y neocoloniales, los países de la periferia. No hubiera sido posible montar el modelo de Estado de Bienestar, tal cual se concibió después de la II Guerra Mundial, si no hubiera sido por un proceso de saqueo de esos recursos que han podido de alguna manera componer ese metabolismo.

En segundo lugar, lo que nos encontramos, es que según se va profundizando en la dinámica de agotamiento o de deterioro de la naturaleza, esa periferia cada vez se va agrandando más. Y, ahora mismo ya fruto de las crisis económicas de los últimos años, vemos como el Sur de Europa se empieza a conformar una nueva periferia, que se segrega de lo que hasta ahora era ese pequeño



III. topaketa ekosozialistak

mundo rico. Y, aparecen, todas las dinámicas de desempleo galopante, de exclusión o el proceso de empleados y empleadas pobres. Porque ya, las propias condiciones laborales son generadoras de pobreza. El trabajo deja de cumplir la función social de librarte de la pobreza, y, la función también económica de salvarte de la precariedad. Esta situación nos la estamos encontrando desde hace tiempo.

Pero hay otra situación de profundísima crisis, una crisis urgente, que con frecuencia está mucho más escondida aunque tenemos todos los elementos para poder analizarla. Es la crisis de la reproducción cotidiana de la vida. Hay, una segunda dependencia material aparte de la naturaleza, que es la dependencia que todos los seres humanos tenemos de otros que nos rodean. La supervivencia de un ser humano en solitario es imposible. Siempre hace falta otras personas que a lo largo de toda la vida pero, sobre todo, en algunos mo-

“La lucha para hacer frente al cambio climático es un reto enorme, y el movimiento de trabajadores y trabajadoras debería estar en primera línea de esa lucha, porque de hecho, ya están en la primera línea de la lucha contra el cambio climático que impulsa el capitalismo”

mentos del ciclo vital sostengan esos cuerpos vulnerables de los que vive la vida encarnada. Hablamos de la infancia, hablamos de la vejez, en una población como la europea extremadamente envejecida, hablamos de la discapacidad o la diversidad funcional a lo largo de todo el período vital... Estas vidas no pueden mantenerse, tampoco en el plano material, si no hay gente que cotidianamente gente que dedique tiempo y energía a mantener esos cuerpos.

Estas tareas, están escondidas mayoritariamente dentro de los hogares, cuando están en el mercado son los trabajos peor pagados, más invisibilizados, y más precarios que existen, y esas tareas son mayoritariamente realizadas por mujeres. No porque las mujeres estén mejor dotadas genéticamente para hacerlas, sino porque en las sociedades patriarcales, el modelo de división sexual del trabajo imponen que las hagan las mujeres. Con mecanismos simbólicos, culturales y económicos.

Esto, además de ser injusto y patriarcal, es que además no es físicamente mantenible. Por tanto, o la sociedad se hace cargo de la protección de la vida vulnerable y se asume una mirada feminista sobre la cuestión del reparto de los trabajos, a nivel de protección social y a nivel de mantenimiento de los cuerpos, o vamos a tener unos problemas enormes, como ya los empieza a tener un montón de gente.

La clave es visibilizar el metabolismo social de una forma completa. El metabolismo social es lo que hace que las personas y las sociedades nos podamos reproducir cotidianamente. Parte de unos bienes fondo que son procesos de la naturaleza, que nadie fabrica y que nadie ha diseñado, como puedan ser los ciclos naturales de los que tenemos en la corteza terrestre. Y, parte también de la existencia de personas que son bienes fondo.

Con personas y naturaleza se van produciendo una serie de procesos de mediación que terminan y vamos generando los bienes y servicios que nos sirven para mantener las necesidades. ¿Qué le sucede a nuestro modelo económico convencional?. Que no mira los bienes fondo, se desentiende de la satisfacción de las necesidades. Tampoco mira todos los trabajos necesarios para sostener la vida que están fuera de la esfera laboral y pone el foco sólo en lo que se hace dentro del mercado.

Y, además, pone el foco traduciendo todo el beneficio a un excedente social medido sólo en términos monetarios. Con esta forma de funcionar, las sociedades somos incapaces de distinguir entre las “producciones que sirven para satisfacer las necesidades humanas” y las “producciones que hacen crecer la economía” pero que deterioran los bienes fondo, y además, no tienen porque estar relacionadas con la satisfacción de necesidades humanas. Por eso nos hace falta repensar esto.

Tenemos un techo ecológico que no hubiéramos debido superar y está pulverizado. Pero tenemos también un mínimo suelo de necesidades por debajo de las cuales no se pueden vivir vidas decentes. Entre ese techo ecológico y ese suelo de necesidades es donde es posible construir vida buena.

Cuando el suelo mínimo de necesidades para algunas personas en el plano material se eleva de una forma importantísima, y hay gente que consume muchísimo más de lo que le corresponde, lo que sucede es que el techo se acorta y por lo tanto, muchas personas, quedan literalmente fuera. Es decir, hemos pasado de un capitalismo de hace unos años de la explotación del trabajo humano y de la producción, a un capitalismo basado en el extractivismo natural y social y, en la expulsión. La mal llamada crisis de refugiados, es un clarísimo

“La cuestión de poder es central porque, para poder acometer estos cambios necesitamos mucha auto-organización, mucho movimiento social organizado y también presionar a unas instituciones que sean capaces de planificar y de financiar el pedazo de cambio estructural que tenemos que hacer”

“Resignifiquemos esa lucha de clases. Ya no nos encontramos sólo con un contradicción capital-trabajo, sino que nos encontramos también con que el modelo productivo tiene que incorporar las relaciones con la naturaleza y las relaciones entre las personas porque sin ellas, no hay modelo productivo”

ejemplo de personas expulsadas de sus países por guerras, fundamentalmente, por el control de los recursos, de personas que también salen de sus países por procesos de desertificación y de sequía, agravados por el cambio climático, que salen como pueden, y los pocos que llegan a Europa, no pueden entrar.

Por tanto, necesitamos apostar para que el cambio de modelo productivo sea en condiciones de equidad y justicia. Y, el cambio de modelo productivo tiene que apostar por disminuciones de la huella ecológica, por disminuciones de gases efecto invernadero, por disminuciones de requerimiento total de materiales, de la cantidad de agua y también, tiene que apostar por incorporar dentro del modelo de producción y de reproducción social, unos trabajos que son los cotidianos del mantenimiento de la vida que no son de mujeres, que son del conjunto de la sociedad y que forman parte indisoluble de ese modelo productivo.

La cuestión de poder es central porque, para poder acometer estos cambios necesitamos mucha auto-organización, mucho movimiento social organizado y también presionar a unas instituciones que sean capaces de planificar y de financiar el pedazo de cambio estructural que tenemos que hacer.

Creo que cuando hablamos por ejemplo de la lucha de clases, merece la pena que resignifiquemos esa lucha de clases. Ya no nos encontramos sólo con un contradicción capital-trabajo, sino que nos encontramos también con que el modelo productivo tiene que incorporar las relaciones con la naturaleza y las relaciones entre las personas porque sin ellas, no hay modelo productivo. Desde esa perspectiva, la noción de clase puede estar mucho más enriquecida porque somos muchas más personas las que podemos tener experiencia de clase y en el extremo, conciencia de clase. ■



Eric Toussaint

Attack.tv

## Herri boteretzeaz: hamar proposamen Grezian izan den kapitulazioa berriro gerta ez dadin

**G**rezian 2015ean gertatu den kapitulazioa berriro ez errepikatzeko, hamar proposamen egingo ditut herri boteretzearen inguruan.

### LEHENBIZIKO PROPOSAMENA.

Ezkerreko Gobernuak alde zuzenetik argi iragarri behar du Europako Batzordeak agindutakoa desobedituko duela. Gobernua izan nahi duen alderdiak edo alderdi koalizioak -eta, jakina, Espainiako Estatuko adibidean pentsatzen ari naiz- hasieratik eman behar die ezetza Batzordearen exijentzia austeritarioei eta oreka fiskalari uko egingo diolako konpromisoa hartu behar du. Zera bota behar du, "oreka fiskala bermatzeko Europako itu-

**ÉRIC TOUSSAINT** zientzia Politikoetan doktorea Liejako eta Paris VIII Unibertsitateetan. Hirugarren Munduko Zorra Ezabatzearen aldeko Batzordeko bozeramailea da (Nazioarteko CADTM), eta ATTAC-Frantziako Zientzia Kontseiluko kidea. 2015ean Greziako Parlamentuko presidentea (Zoe Konstantopoulou) Greziako Zorraren Auditoretzarako Nazioarteko Batzordeko zuzendari izendatu zuen.

nek ezartzen duten behar hori ez dugu beteko", neurri antisozialak eta austeritarioak borrokatzeko eta trantsizio ekologikoari ekiteko gastu publikoa handitu nahi dugulako. Beraz, lehenbiziko puntua desobeditzeko asmoa argi eta irmo adieraztea da. Nire ustez, Greziako kapitulazioaren ostean, Europako Batzordeak eta beste gobernuak herri borondatea errespetatuko dutelako ilusio faltsuaren ideiarekin EZ jarraitzeak berebiziko garrantzia du. Ilusio faltsu horri eustea desastre hutsa izango litzateke. Desobeditu egin behar da.

### BIGARREN PUNTUA

Herri mobilizazioa deitzeko konpromi-

soa. Herri mailan eta Europa mailan. Honen falta ere egon zen iaz Grezian. Europako mugimendu sozialak ez ziren aritu egoerak eskatzen zuen moduan; Greziako herriaren elkartasuna erakusteko mobilizazioak egon, egon ziren, baina ez ziren nahiko indartsuak izan. Baina, era berean, egia da Syrizen norabide estrategikoaren markoan ez zegoela Europa mailako herri mobilizaziorik deitzea, ezta Grezian bertan herri mobilizaziorik deitzea ere. Eta 2015eko uztailaren 5eko erreferendumaren bitartez mobilizaziora deitu zutenean, grekoen %61,5aren borondatea GERORA ez errespetatzeko izan zen, grekoek hartzekodunen exijentziak betetzeari uko egin zioten eta.

#### **HIRUGARREN PUNTUA.**

Zorraren auditoretza antolatzeke konpromisoa, herriaren parte hartzeaz. Nik uste, auditoretza egitearekin batera, zorra ordaintzeari ere utzi behar zaio. Europako Batasuna osatzen duten 28 herrialdeen egoerak ezberdinak dira. Hainbatetan ordaintzeari uztea premia-premia eta lehentasun osoko neurria da, hala nola Grezian, Portugalen edota Txipren. Espainiako Estatuan ikusi beharko litzateke. Beste herrialde batzuetan auditoretza egiten hasi eta, gerora, ordaintzeari uztera hel liteke. Neurri hauek herrialde bakoitzaren egoera kontuan hartuta sustatu behar dira.

#### **LAUGARREN NEURRIA.**

Kapitalen mugimenduen kontrola ezartzea. Eta kontuan hartu behar da honek zer esan nahi duen. Hau da, atzerriko bazkideei ehunka euro transferitzea herritarrei galaraziko zaielako ideien kontra egin behar da. Nazioarteko diru transakzioak, maila batera arte, egin litezke, jakina; kapital mugimenduen gaineko kontrola inplementatzeaz ari gara, kopuru zehatz batetik gorako transferentziatarako.

“Herri mobilizazioa deitzeko konpromisoa. Herri mailan eta Europa mailan. Honen falta ere egon zen iaz Grezian. Europako mugimendu sozialak ez ziren aritu egoerak eskatzen zuen moduan; Greziako herriaren elkartasuna erakusteko mobilizazioak egon, egon ziren, baina ez ziren nahiko indartsuak izan.”

“Ekosozialismoa ez da astebururako diskurtsoa. Eguneroko diskurtsoa da; berehalako proposamenak hortik sortu behar dira gerora zehaztu ahal izateko. Eta austeritatearen kontrako borroka osagarritzea eta trantsizio eta bide ekosozialistari ekitea berehalako premia daukagu erabat”



#### **BOSGARREN NEURRIA.**

Finantza sektorea sozializatzea. Niretzat, finantza sektorea sozializatzea ez datza polo publiko bankario bat garatzean. Finantza sektorearen inguruan monopolio publikoa dekretatzean baizik, banku eta aseguruak barne hartuta. Finantza sektorea herritarren kontrolpean sozializatzea. Hau da, finantza sektorea zerbitzu publiko bihurtzea. Trantsizio ekologikoaren markoaren barruan, energia sektorearen sozializazioa ere lehentasunezko neurria da, noski. Ezin da trantsizio ekologikorik burutu, energia sektorearen monopolio publikorik ez badago, bai ekoizpen mailan, baita banaketa mailan ere.





Athanasios Lazarou CC BY

## SEIGARREN PROPOSAMENA.

Moneta osagarria sortzea, aldagarria izango ez dena. Eurotik irten ala eurozonan gelditu, edozelan, moneta osagarri eta ez aldagarria sortzea beharrezkoa da. Hau da, herrialde barruko trukeetarako eta hurbileko zirkuitoetan erabiltzeko balio lukeen moneta izango litzateke. Adibidez, jubilazio igoerak, funtzionario publikoen soldaten igoerak, zergak, zerbitzu publikoak eta abar ordaintzeko balioko luke. Euroaren eta Europako Banku Zentralaren diktaduratik hein batean irten ahal izateko eta diktadura hau samurtzeko erabil daiteke moneta osagarria. Jakina, eurozonatik irtetzearen inguruko ezta-

baida ezin da ekidin. Hainbat herrialdetan eurozonatik irtetzea alderdi eta klase sindikatuak defendatu behar duten aukera dela uste dut. Eurozonako zenbait herrialdek ezin diote austeritatearekin apurtzeari benetan ekin eta trantsizio ekosozialistari hasiera eman, ez baldin badira eurozonatik irtetzen. Eurozonatik irtenez gero, nire ustez, erreforma monetario birbanatzaileari ekin behar zaio. Zer esan nahi du honenek? Pesetara itzuliz gero, esaterako, 200.000 euro garbi edo likidora arte, euro 1en truke 100 peseta izango direla ezartzea. Baina 200.000 eurotik gora (edo 100.000 eurotik gora izan liteke) 100 pesetaren trukea 1,5 euro izango dela. Maila altuago batean, euro 2

izango liratezke. Mailarik gorenetan, 500.000 eurotan kasu, 10 euro eman beharko liratezke 100 peseta jasotzeko. Honexeri deitzen zaio erreforma monetario birbanatzailea. Zirkulantea gutxitu eta etxeetako ondare garbia handitzen du honek. Argi dagoenez, honela jokatzuz gero, %1 aberatsenaren ondare garbiaren zati bat deuseztatzen da. Ez ditut Euskal Herriko edo Estatu espainoleko datu zehatzak ezagutzen, baina jakin badakigu herritarren ia %50ek aurrezkirik ere ez daukala; herritarren %30ek, behekoek, zorrak dauzkate, ez daukate ondare garbirik. Euren ondarea hipotekatutako etxebizitza izan daiteke, baina herritarren gehiengo horrek ez dauka ondare positiborik.



III. topaketa ekosozialistak

### ZAZPIGARREN NEURRIA.

Fiskalitatea errotik erreformatzea, jakina. Oinarrizko produktuen gaineko BEZa ezabatu behar da: jakiak, argia eta ura, premia-premiazkoak diren bestelako zerbitzuak, adibidez. Hala ere, luxuzko produktuen eta kutsatzen duten produktuen gaineko BEZa handitu behar da, oinarrizko produktu eta zerbitzuetan izan ezik. Eta enpresa pribatuen irabazien gaineko zergak, zein maila batetik gorako irabazi eta diru sarreren gaineko zergak, handitu behar dira. Hau da, diru sarreren eta ondarearen gaineko fiskalitate progresiboa ezarri behar da.

### ZORTZIGARREN NEURRIA.

Pribatizazioei buelta ematea. Pribatizatu diren enpresak berriro eros daitezke, euro sinboliko baten truke. Horrela, maila horretan, euroa erabiltzea sinpatikoa izan liteke guztiz: pribatizazioetaz aprobetxatu ziren horiei euro sinboliko bat ordainduta. Eta herritarren kontrolpean egongo liratezkeen zerbitzu publikoak indartu eta zabaltzea behar dira.

### BEDERATZIGARREN NEURRIA.

Lan denbora laburtzea, soldadari eutsita. Lege antisozialak indargabetu eta hipoteken zorraren egoera konpontzeko legeak ezarri behar dira. Legeen bitartez egin liteke erraz asko, epaketak saihestearren (izan ere, zor hipotekarioa dela eta, hainbat eta hainbat epaketetan familiak bankuei aurre egiten ari dira). Parlamentuak, lege bidez, 150.000 eurotik beherako zor hipotekarioak deuseztatu ahal ditu, adibidez. Horrela, ez litzateke epaketetara jo beharko.

### HAMARGARREN NEURRIA.

Benetako prozesu konstitugileari ekitea. Kontua ez da konstituzioan aldaketak egitea egungo kongresuan edo gorteeetan; baizik eta Parlamentua deuseztatu eta Asanblada konstitugilea osatzeko zuzeneko hauteskundeak deitzea. Nazionalitateen afera eta abarrak kontuan hartuta deitu behar dira, jakina. Baina kontua da benetako prozesu konstitugile bati ekitea, izan nazionalitateetan, izan Estatu mailan bere horretan. Eta hau Eu-

ropa mailako beste prozesu konstitugile batzuekin zelan uztartu ahal den bilatu behar da.

Hauk dira, nire ustez, eztabaidatu behar diren oinarrizko hamar neurriak. Neurri hauek goi mailakoak dira, zeren eta, hasieratik neurri erradikalik iragartzen ez badugu, austeritate politikekin haus-turarik ere ez dela egongo uste baitut. Ez dago austeritate politikak ezerezteko aukera handirik kapital handiaren aurka errotiko neurririk hartzen ez badugu. Hau saihestu ahal dela uste duten horiek haitzaburu hutsak dira, benetan eta zehazki gauzatu ezin diren formulak saldu baino ez dute egiten. Europaren maila, Europaren arkitektura den modukoa izanda, kapitalismoaren krisia hain da handia, ezen ez baitago benetan toki gehiagorik politika neokenesiano produktibistak aplikatzeko. Niretzat, ekosozialismoa ez da astebururako diskurtsoa. Eguneroko diskurtsoa da; berehalako proposamenak hortik sortu behar dira gerora zehaztu ahal izateko. Eta austeritatearen kontrako borroka osagarritzea eta trantsizio eta bide ekosozialistari ekitea berehalako premia daukagu erabat. ■

# Beharrezkoa litzateke biopolitika bat garatzea, bio-poterearen aurrean



Mario Zubiaga

Goiena Komunikazio Taldea CC BY SA

**MARIO ZUBIAGA** UPV/EHUko irakaslea eta Zientzia Politikoetan doktorea da. Teoria politiko garaikidea, gizarte mugimenduak, protesta moduak eta herri-burujabetza prozesuak aztertzen ditu, eta erabakitzeko eskubidearen aldeko "Gure Esku Dago" mugimenduko kidea da.

**K**omuna dena pribatizatuz Disney mundua ezartzen ari da Kapitala. Herriak tematizatzen eta bizitzak kolonizatzen, errentagarritasunaren parametroetan. Disneyfikazio prozesua horren aurrean auzolanaren filosofia aldarrikatzen du Mario Zubiagak, eta sakon dihardu gai honen inguruan.

"Naturak ez du saltorik egiten, baina kapitalismoak bai, modernizazio prozesu klasikoetan sumatzen ditugun urbanizazio, industrializazio, merkantilizazio, zentralizazio prozesu horiek guztiak azkartu egin dira", Zubiagaren hitzetan. Maila

globalean "desjabetza izugarriak" gertatzen ari direla dio. "Errenten desjabetza ematen ari da, eta beraz, nonbaitetik kendu behar da errenta hori gutxi bazuen esku kontzentratzeko".

Zer gertatzen ari da bizitzaren kolonizazioaren inguruan? Foucaltek aipatzen zuen bio-poterearen dinamika dakarkigu gogora Zubiagak, "dinamika hori azkartu eta sakondu egin da, teknologia berrien iraultzak areagotu egin du".

Bi kolonizazio gune nagusi bereizten ditu, pertsonena zein espazio fisikoa-

rena. Pertsonak eta lurra. "Eguneroko bizitzaren kolonizazioa, arlo pribatuak konkistatu duena, eta lurraren kolonizazioa. Lurra konkistatzeko eremu gisa betidanik ikusi du Kapitalismoak. Orain jauzi sakonagoa ematen ari da lurraren pribatizazioan". "Disneyfikazioa" hortik dator, espazio fisiko zein lurren tematizazioetik.

Haren iritzi, espazio fisikoaren konkistak eragiten du lubaki, harresi eta hesi berriak sortzea, jendearen mugimendua ekiditeko. "Erdi Aroko dinamikak sendotzen ari dira, klase desberdintasunak finkatzeko. Behar denerako fluxu finantzieroak eta onartzen dira, baina fluxu fisikorik ez, arriskuan jar dezakeelako errenta banaketa horren ondorioz onura lortu dutenen bizimodua".

Bio-potereari aurre egingo dion biopolitika baten beharra aldarrikatzen du Zubiagak, kontrabotere gisa. Lurra eta pertsona izanik borroka gune nagusi, biopolitikaren borroka garatzeko "gune batzuk besteak baino aproposagoak" izan daitezkeela dio, eta hor kokatzen du Euskal Herria. "Lurrarekin zuzeneko lotura galdu ez duen komunitate bat baldin badago, hor pertsona, komunitateko kide bezala, eta lurra oso gertu dauzkagu. Borroka hori derrigorrez lekututa dago, oso behetik gora bideratu behar delako."

Zergatik izan daiteke Euskal Herria eremu aproposa? "Borroka historia luzea dugulako, ikuspegi komunitariotik abiatuta lortu da nazio eraikuntza edo estatu eraikuntza minimo bat lortzea, erakundetzea, Euskal Herrian herrigintzatik eta beheti gorako dinamika popularretik. Horrek lortzen du ikuspegi kritiko bat boterearekiko, sortzen du kultura politiko jakin bat". Hala, kointura historiko batzuk definitu dute egoera bat "eta horrek erraztu egiten du zenbait kultura politiko errotzea gure herrian". Beren nortasun kolektiboa garatzen ari diren Katalunia, Eskozia edo estatuturik gabe ari

diren beste herri txikiak jartzen ditu adibide gisa, normalean sortzen duten kultura politikoa "bestelakoa" delakoan.

Modernizazioaren aurrean erreakzioak ezberdinak izan daitezke. Zubiagak bi aipatzen ditu, bata aurremodernitateak zeuzkan zenbait elementu berreskuratzea: "auzolana edo deshazkondearen kontzeptualizazioak edo sozialismo autogestionatutik eratorritakok zenbait erreflexio". Bigarrena,

erantzun "erabat modernoa", neurri batean "marxismotik datorrena". Horren bilakaera da gizarte mugimendu berriek 60.hamarkadan sortu zuten kontzeptualizazio berria, "utopia positibo eta baikor batean oinarritua", mundu hobia etorkizunean izateko.

Zubiagarentzat Euskal Herrian "nolabaiteko artikulazioa" dago bi pentsamoldeen artean. Alde batetik, iraganetik etortzen diren elementu eta aspektuak jasotzea, eta bestetik, proiektu aurrerakoi utopiko bat. "Posible da mundua aldatzea, mundu alternatibo bat eratzea".

Horrez gain, globalizazioak berak dakartzan kontraesanak aprobetxatzeko, beste zenbait lekutan baino aukera aproposagoa dugula ere badio: "Potentzialki errentagarria den konfigurazio kulturala" dugulako, baina kasu, horrek "Disneyfikazioaren arriskua" izan leza keelako, alegia, Euskal Herria bihurtzea "parke tematiko errentagarri batean".

Komunitate bat konfigurazio kultural horietan definitzen den neurrian, hor ere erresistentziarako aukerak badira, "errenta sortzen duen merkatu espezializazioak, era berean, sortzen du erresistentzia. Gurera ekarrita, euskal hiri, Euskal Herri errebeldea sortzeko aukera gehiago dago, hain zuzen ere, konfigurazio errentagarri bat delako".

Hor egon daitezke zenbait aukera teorikoa biopolitikaren euskal eremua



III. topaketa ekosozialistak

definitzeko. Izan ditzaketen adierazpen praktiko, estrategia eta taktika konkretuen inguruan ere ideia pare bat aurreratzeko digu Zubiagak:

Lurraldea eta pertsona bilakatu badira borrokagune, "borroka eta pertsonaren estatusarekin kezka, ardua eta erreibindikazioekin lotutako jarduerak" hartu beharko lukete lehentasuna. De facto, bigarren mailako kontraesanak zirenek "orain lehentasun izugarria" hartu izana nabarmentzen du.

Beste lerro bat, "merkatu eragileen esku uzten duguna", lurralde narratiben inguruko eztabaida da. "Euskal hiria, euskal erregioa eta halako kontzeptualizazio narratiboak. Borroka honetan muturra sartu behar dugu, komunaren kontzeptualizazioan eta erreibindikazioan hasi da pixkat narratiba alternatiboa eraikitzen, baina narratibaren borroka eremua hor dago".

Jarduera ereduaren inguruan gehitzeko beste elementu bat "demokraziaren berkontzeptualizazioa" da, demokrazia klasikoan oinarritua, "krisian dagoena".

Mediazio egiturak, "borondate kolektibo eta indibidualaren artean dauden tarteko egiturak —sindikatuak, alderdiak, komunikabideak— krisian daude". Funtziorik ez duten heinean batzuk "desagertuko" direla aurreikusten du Zubiagak, baina "besteak egokitzen" ari dira beren funtzioak, eta egokitzapen horretan "demokraziaren kontzeptualizazioa bera ere aldatzen ari da".

Demokrazia parte hartzailearen orain arteko eskemari mugapenak ikusten dizkio Zubiagak, gatazkaren dimentsioa "alboratu" egiten duelako, eta "ezin delako alboratu", demokratizazioan aurrera egin nahi bada.

Bestela esanda, orain arteko eskematan demokrazia parte hartzaileak "neurri batean status quo baten garapenerako" balioko luke, baina ez demokratizazioan aurrera jotzeko "azken finean, zuzeneko demokrazia, herritarren zuzeneko adierazpena, horregatik pizten da".

Adierazpen horiek dira kontsultak, erreferendumak, prozesu konstituentiak... autoorganizazioaren esku, jen-



dearen erabakiaren esku. Egun garrantzia izugarria hartu dute, "lelo berriak dira" erabakitzeko eskubidearen marko orokorrean kokatzen den zuzeneko demokraziaren berpiztea eta, horrekin erabat lotuta, behetik gora prozesu konstituziogileak garatzea", Zubiagaren esanetan.

"Demokrazia eredu eraberritu bat" definitzen dute horiek, "pentsamendu kooperatibo sakon batek" dauzkan edukiekin. Landa eremuan auzolanarekin islatzen zena, zenbait eremu sozio-ekonomiko edo industrialetan kooperatibetan islatzen dena, baina falta izanik pensamendu sakon hori "arlotik instituzionalera eramatea".

Zubiagari galdetuta, berak "demokrazia kooperatiboan" jarriko luke behetik gorako logika konstituziogilea, "herri eta eskualdeetatik abiatutako itun herritarren dinamika". Itun soziala "oso saiakera interesgarria" dela dio, baina bitartekaritza "eragileetatik haratago jotzea" falta zaio, "herritarren ikuspegira eramatea neurri batean itun sozialaren gakoa". Hori litzateke prozesu konsti-

tuziogile baten garapena, eta hori lotuz zuzeneko demokraziarekin, kontsultarekin, ikusten du "lerro biopolitiko bat potentzialitate izugarria izan dezakeena Euskal Herrian".

"Bitartekaritza eragileetatik herritarrengana jauzi egin eta herritarren implikaziotik itun herritar sozio-ekonomiko, kultural eta bestelakoak garatzea, gero zuzeneko demokrazioarekin lotuz, edo kontsultekin, edo erreferendumeekin", hor dago Zubiagarentzat jorrazteko moduko lerro bat.

Eta zein punturaino ote da garrantzitsua ehuntze kooperatiboa, ekonomikoa solidario eta soziala deitzen den hori indartzea eta bultzatzea, globalizazioak kontrolatu nahi dituen dinamika, elementu eta fluxu guztien —jendea, errenta, zaborra, lurra, hiriaren antolakuntza, sinboloak, kultura, hezkuntza— inguruan? "Bitartekaritza egituren egin beharra ere bada beren baliabideak erabiltzea ehuntze kooperatibo horiek lagunduz, bultzatuz, sortuz. Bolo-bolo dabilen eztabaida da sindikalismoaren lana zein litzatekeen; agian sindi-

kalismoak ere bueltatu behar du XIX. mendera, eta itzultzeko modu bat da ehuntze kooperatibo horretan saiatzea, enpresa eta produkzioaren eremua gaituz".

Hortxe kokatzen du Zubiagak gakoetariko bat Disneyfikazioari aurre egiteko ere. "Auzolana vs Disneyfikazioa baldin bada biopolitika eta bio-boterearen arteko tentsioaren adierazpena, auzolan eskema hori eraman behar da dinamika elementu guztietara".

Estatua izateko ibilbidean dauden estatutik gabeko nazioen erakundetze maila bat ikusten du eta erakunde horietan dauden arduradun ideologikoak klabe ideologiko alternatibo batzuetan egon daitezkeela dio. "Hori kontuan hartu beharko litzateke parteneriario formula ezberdinak garatzeko". Gobernantza "publiko-pribatua" izan da sistemaren funtzionamendua azken markadetan. Posible izango litzateke gure herrian jakinda zein indar harreman dagoen zenbait erakundetan, gobernantza publiko herritarra garatzea, hau da, kolaborazioa erakunde eta sare kooperatibo horren artean? Zubiagaren arabera hor bada "beste eremu bat has-tapeneta".

"Salbuespen egoeran" gaudela dio eta beraz, horrek "salbuespenezko erantzunak" eskatzen ditu. Haren hitzetan, oraindik ere "pixkat lotuta" gaude agitazio eta propagandaren aktibitate ohikora eta erresistentzia aktibitatera. Salbuespena aprobetxatzeko modu bat "eraikuntza klabeetan aritzea" litzateke, eta horrek suposatzen du "pixka bat apurtzea gure jardura eredu klasikoarekin, jardura berriak garatu behar ditugula pentsatuz". Berritzaileak izan daitezke orain aplikatzen direlako, baina Zubiagak ongi dioten moduan "iraganen" daude adibide eta eredu horiek. "Kontua da eraberritzea eta biopolitikaren mesedetan jartzea, bio-botereari aurre egiteko". ■

# Un nuevo orden feudal

## Los tratados y acuerdos de comercio e inversiones

**E**l título de mi intervención no es aleatorio, pretende unir dos categorías, el orden feudal y los acuerdos de comercio e inversiones, que nos sitúan ante la crisis de la democracia y de los ordenamientos jurídico-políticos de la etapa actual del capitalismo.


En el feudalismo el poder político se fractura y es asumido por los grandes propietarios de la tierra, los señores feudales. Estos se convierten en jueces, administradores, recaudadores, legisladores, jefes militares... en definitiva, concentran el poder al margen de toda regla democrática. Se disgrega el poder político, lo que da lugar a la total privatización de funciones públicas en beneficio de una minoría de privilegiados, los señores feudales.

Obviamente, juego con una metáfora para poner en evidencia la profunda crisis civilizatoria por la que atravesamos y que voy a focalizar en los acuerdos de comercio e inversiones. Su generalización está dando lugar a una quiebra sustancial de la democracia, de la soberanía de los Estados, de los pueblos, de las instituciones y de las garantías normativas de la democracia representativa.

### LOS PRINCIPIOS DEL NUEVO ORDEN JURÍDICO FEUDAL

**A.** Los nuevos principios del capitalismo se sustentan en la privatización, la desregulación, la quiebra de las políticas públicas y el desarrollo de políticas represivas para el control de las protestas sociales. Estos principios se sitúan en la cúspide la pirámide normativa.

Las líneas que siguen a continuación responden a la intervención oral realizada en el marco de una mesa de debate. Intervención que se ajustó a veinte minutos de duración.



Juan Hernández  
Zubizarreta

IPES elkartea CC BY-NC

**B.** Los tratados y acuerdos de comercio e inversiones combinan la desregulación de las obligaciones de las empresas transnacionales con la regulación de sus derechos. Se pretende eliminar toda barrera – arancelaria o no- que dificulte el desarrollo del libre comercio y de la inversión.

**C.** Los derechos humanos y los derechos sociales entran en un proceso de privatización y de mercantilización. Por otra parte, se sustituyen sus núcleos esenciales por la explotación/precarización.

**D.** El telón de fondo sobre el que se

**Juan Hernández Zubizarreta**, profesor de la Universidad del País Vasco y doctor en Derecho. Investigador del Observatorio de Multinacionales en América Latina. Profesor en diferentes Máster y universidades de México, Colombia, Guatemala, Perú, Argentina y Uruguay. Autor de libros y artículos especializados en empresas transnacionales, tratados de comercio e inversiones y derechos humanos.



III. topaketa ekosozialistak

construye el poder de las grandes corporaciones transnacionales es el capitalismo. Ambas categorías son inseparables -capitalismo y empresas transnacionales- y se sustentan en la acumulación de riqueza -sin límites y en muy corto espacio tiempo- de unos pocos a costa de los derechos de las mayorías sociales, de los derechos de los pueblos y de la naturaleza. Los derechos humanos y el medio ambiente se convierten en meros recursos al servicio de la acumulación de capital.

**E.** Además, la violencia y la crisis de la democracia son consustanciales al mismo, lo que provoca que el poder de las empresas transnacionales destruya la soberanía popular y capture países y territorios como si formasen parte del organigrama interno de las grandes corporaciones.

“Los derechos humanos y el medio ambiente se convierten en meros recursos al servicio de la acumulación de capital”

“Hay que reinterpretar la soberanía como un nuevo marco de luchas y cuestionar que algunos Estados que configuran el marco europeo sean el espacio más adecuado para el combate pendiente”

**F.** La contractualización de la ley y de las relaciones económicas. Partimos de como el derecho oficial pierde su centralidad y se desestructura al coexistir con otro derecho no oficial dictado por diversos legisladores -no democráticos- en el ámbito de la globalización neoliberal.

### LA UNIÓN EUROPEA EN LA LÓGICA FEUDAL

La Unión Europea comenzó su andadura bajo las directrices de los Estados, posteriormente del mercado y a raíz de la década de los 90 ha sido el modelo neoliberal el que se ha impuesto.

La crisis económica ha puesto sobre la mesa con total claridad cómo el poder económico domina al poder político y cómo la arquitectura jurídico-institucional se reinterpreta a

favor de las clases dominantes. El pacto capital-trabajo se ha roto y la crisis de los derechos sociales, económicos y culturales y la quiebra de las políticas públicas, nos permite afirmar que las nuevas generaciones se enfrentan a peores condiciones de vida que las anteriores.

La nueva legalidad internacional y comunitaria sustentada en leyes, reglamentos y sentencias está dando lugar a una constitución global que apuntala el poder de las clases dominantes y que actúa amenazando los procedimientos que tutelan los derechos sociales en los marcos constitucionales. En Grecia, la troika (Comisión, FMI y Banco Central) estableció mecanismos de supervisión en todos los ministerios del gobierno griego, lo que implica medidas neocoloniales que cercenan la soberanía nacional.

## ¿QUÉ HACER CON EUROPA?

La expresión política del entramado jurídico descrito, nos confronta con la asimetría existente entre los derechos sociales y la defensa del capital, y, por otro lado, con el chantaje al que se sometió al pueblo griego –y con otra intensidad, a la región de Valonia para que aceptara el CETA-. La armadura construida dispone de dinámica y autonomía propia y supera la mera calificación de instrumento al servicio del capital.

Hay que abordar algunas preguntas al respecto. ¿Los movimientos sociales, la izquierda y el movimiento sindical tienen capacidad para revertir el entramado jurídico actual de la UE?

Necesitamos nuevas alianzas y espacios geográficos más pequeños, más cercanos, más soberanos, donde fomentar una nueva organización política y económica. Hay que reformular “nuevos marcos de luchas de clases” capa-

ces de quebrar las armaduras estatales y la armadura comunitaria.

Y es en esta dirección donde quisiera afianzar la conexión que existe entre quienes participamos del independentismo y, a su vez, de las ideas ecosocialistas. Creo que la mera enumeración de alguna de estas ideas nos aproxima, desde la radicalidad de las mismas, hacia nuevos espacios de ejercicio de soberanía.

1. La soberanía de los pueblos y el derecho de autodeterminación deben presidir el marco normativo de las relaciones internacionales.
2. No todo puede comprarse y venderse: el derecho a la alimentación, la salud, la cultura... deben quedar fuera de las transacciones comerciales.
3. Se debe privilegiar el valor de uso sobre el valor de cambio, lo que implica que la producción de un valor agregado como fuente de la tasa privada de ganancia sea sustituido por la actividad que asegure los derechos de las mayorías sociales; el derecho a la propiedad debe ser limitado y sometido al interés general.
4. El Estado debe reducirse en todo lo que implique control social, control militar y preparación para la guerra.
5. El Estado debe expandirse, desde la democracia participativa, a las políticas públicas relacionadas con la educación, sanidad, cultura, respeto a las identidades... etc.
6. Frenar la privatización de los servicios públicos, los servicios sociales y las pensiones.
7. Limitar el crecimiento económico productivista y despilfarrador de recursos naturales y energéticos en los países desarrollados.

8. Poner freno al consumismo desaforado estimulado por la publicidad de las empresas multinacionales.

9. Terminar con los códigos patriarcales de dominación y profundizar en los esquemas de la economía feminista, lo que implica una redefinición de los derechos sociales y terminar con la división sexual del trabajo.

10. Prohibir la fabricación y venta de armas.

11. Potenciar la soberanía alimentaria y la reforma agraria.

12. Suspender el pago de la deuda, apoyar auditorías ciudadanas, no pagar las deudas insostenibles, ilegítimas e ilegales y buscar mecanismos de compensación de la deuda ecológica.

13. Oponerse a las políticas de ajuste y austeridad y al trato desigual que se ejerce contra los pueblos, desde las instituciones comunitarias.

14. Socializar los bancos y controlar el movimiento de capitales.

El carácter subversivo de estas propuestas debe acompañarse de la búsqueda de espacios soberanos populares, democráticos y con vocación de federarse desde la autodeterminación de los mismos. Hay que reinterpretar la soberanía como un nuevo marco de luchas y cuestionar que algunos Estados que configuran el marco europeo sean el espacio más adecuado para el combate pendiente. La disyuntiva es compleja, pero el debate es urgente, ya que transformar la reivindicación independentista como equivalente al estado 29 de la Unión Europea no es el camino, de la misma manera que considerar a los Estados miembros de la UE como espacios inmutables para la transformación social, tampoco es la solución. ■





Bea Martxueta

LAB CC-BY-SA

## «Kapital-bizia gatazka gure borroketarako ardatza izan behar da»

LABek Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistak antolatu eta bertan parte hartu du, ze testuingurutan kokatzen duzu pauso hau?

I. Topaketa Ekosozialistak 2014ko urtarilean, Genevan, eta II.ak 2015eko ekainean, Madrilan, burutu ziren; Nazioarteko III. Jardunaldiak 2016ko irailaren 23tik 25era bitartean Bilbon antolatzeko aukera izan genuen, Euskal Herriko, Suitzako eta Europako beste herrialde batzuetako hainbat mugimendu sozial, sindikatu eta erakunde politikotako lagunekin batera. Momentu horretan LABek argi izan zuen, bertan egon behar ginen.

Zeren eta ekosozialismoak, azken batez, jendarte sozialistaren alde borrokatzea esan nahi baitu. Ekologikoki iraunkorra izango den jendarte sozialista. Hazkunde hutsagatiko hazkunde nahiarekin amaitu eta horri buelta emango dion jendarte. Naturaren

### Bea Martxueta

Abokatu da.

LABeko komite exekutiboko kidea 2006az geroztik. Politika Sozialetako idazkaria eta batzorde sozio-ekonomikoko kidea da

kontura ez, baizik eta naturarekin harmoniaz biziko den jendarte. Izaki humano moduan, habitatzen dugun planetarekin daukagun harremanetan erabateko aldaketa da hau. Eta hau guztia gure praktika sindikalean aplikatu beharra daukagu.

Ba al dakar honek LABek sustatu izan dituen bestelako balio batzuekiko hausturirik?

Jardunaldi ekosozialistetara deitu genuenean esan bezala, ordua da herriek, euren subiranotasuna erabiliz, egungo egoera aldatzeko ardura beren gain har dezaten. Ordua da bizitzeko, ekoizteko, kontsumitzeko eta ingurunearekin zein beste pertsonekin harremanak izateko bestelako eredu bat eraikitzeko eta, honetarako, komunitatearen, herriaren, protagonismoa azken hariraino eramane behar dugu, identitate anitz

eta propioak kontuan hartuta. Ordua da suntsipen korrontearen ibilera aldaraziko duen emari ekosozialista eta feminista osatzeko. LABek balio hauen guztien aldeko borroka eta gure herriarekiko konpromiso saihestezina uztartzen ditu. Sindikalismoak bere burua berriztatu behar du eta inplikatu beharra dauka. LABek hau hitzez eta egitez betetzen du.

### Diagnostiko global partekatuak eragin ditu topaketa hauek...

Gerrak, desertifikazioak, errefuxiatuen krisia –edo horrela, oker, deritzona-, natura baliabideen agorpena, desberdinkeriak, bizitza beste bizitza batzuen kontura... hauek guztiak kapitalaren metaketa eta kontzentrazioa ezaugarri eta helburu nagusizat daukan sistemaren diru gosearen ondorioak dira.

Hortaz, krisi globalari egin behar diogu aurre. Gizaterian aurrekaririk izan ez duen sistemaren eta zibilizazioaren krisia da hau; krisi estrukturala da, beste hiru krisi handi sorrarazi dituena: zaintzen krisia, krisi ekologikoa eta krisi soziala.

### Mugimendu sozial eta sindikala antolakuntzan eta politikoki aurrera egiten ari da, topaketa hauek aditzera ematen dutenez. Ze norabiderantz jo behar da?

Ekosozialismo deitzen dugun horren zeregin funtsezkoena erantzuna antolatzeta eta jendarte, ekoizpen eta kontsumo eredu berri bat eraikiko duten herri alternatibak sortzea da.

Euskal Herrian ere premiazkoa da mobilizazioa areagotzea, esperientzia eta proiektu alternatiboetan sakontzea, zeren eta inork ez baitugu oparitutuko alde aurretik guri, herri moduan, geurez dagokigun burujabetza, ezta gure lan eta bizi baldintzen hobekuntza ere. Gatazka desorekatu honetan, edo espekulatzailerik eta errentistek, edo langileok, irabaziko dugu. Mugimendu sozio-sindikalak egoera hau aldatzen ez badu, beste inork ez du aldatuko. Eta hemendik urte batzuetara penetan ibiliko gara egin izan ez dugulako.



“Demokrazian bizi nahi duen edozein jendartek demokrazia horixe bera bermatu behar du produkzio harremanetan eta lanaren bitartez sortzen duen aberastasunaren banaketan”

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan esaten genuen bezala, naturaren mugak errespetatu behar dira, ekoizpen eta kontsumorako bestelako modu batez. Ekosistema mugatuan bizi gara: ez ditu materialak mugagabe birsortzen eta ez ditu hondakinak mugagabe absorbatzen. Lehengaien (berriztagarrien zein ez berriztagarrien) energia kontsumo gehiegizkoak, batez ere aberastutako herrialdeetan, baliabideen agorpenean eta aldaketa klimatikoan aktiboki eragiten du eta honek etorkizun hurbilean zorigaiztoko ondorio larriak izan ditzake. Bizi osasungarri-rako eskubidean oinarrituko den ekoizteko eta kontsumitzeko bestelako modu bat premia-premiazkoa da.

Ingurumenaren zaintzak edota trantsizio energetikoak kontraesan bat baino gehiago ekarri dizkio ezkerari, oro har, eta sindikalismoari, zehazki. Zelan ekin behar die honelakoei sindikalismoa egiteko modu berriak?

Ikuspuntu sindikal honetatik ekosozialismoaz hitz egitea, sistema kapitalista bio-



III. topaketa ekosozialistak

zida eta iraunkortasunaren kontrakoa dela ulertzea da; kapitala ezaugarritzen duen diru gosea neurrigabea da, baliabide naturalak ez bezala. Azken batez, baliabide naturalen aferak sortzen duen gatazkari ekin behar dio langile klaseak, garapena oso ezberdina izango baita, baldin eta baliabide hauek kapitalaren esku edo herrien esku badaude.

Sindikalismoak bizi eta lan baldintza duinak defendatu behar ditu ikuspuntu hau gogoan hartuta. Trantsizio energetikoa ekidinezina da. Modu batera edo bestera, baina izan, izango da. Inposatu diguten sistema ez da ekologikoki iraunkorra eta honek bizi eta garapen iraunkorrerako eredia defendatzera behartzen gaitu, gure herriarentzat, gure komunitatearentzat eta langileria-arentzat.

Dirudienez, azaldu duzun hori bezain beharrezkoa da gure ikuspegi eta ekin-tza sindikalean lanen inguruko jarrera berri bat txertatzea... zaintza lanak, lan ez ordainduak eta abar eztabaidaren erdigunera ekarri behar den ardatza da.

Zalantzarik ez. Sistema kapitalista harreman patriarkaletan oinarritzen da eta, hortaz, pertsonen artean rol eta erlazio hierarkiko ezberdinak ezartzen ditu. Lan produktibo eta erreproduktiboaren arteko banaketak emakumeoi aitortza ekonomiko eta sozialik gabeko lanak inposatzen dizkigu; honek ikusezin bihurtu eta menperatzen gaitu. Gaur egungo sistemak, argi eta garbi, ezin dio zaintza lanen arazoari ikuspuntu sozialetik eraginkorra eta justua izango den erantzunik eman. Jendarteak behar dituen lan guztiak kontuan hartu behar ditugu (ordaindutako enplegua, zaintza lanak edo etxeko lanak oro har), guztiei merezi duten aitortza eta balioa eman behar diegu eta duin banatu daitezela bilatu behar dugu.

Baina sindikalismoaren gatazka-fronte nagusia oraindik dago soldatapeko enpleguaren lan eta bizi baldintza duinen esparruan. Kapitalismoa ustiapenerako daukan gaitasuna areagotzeko prestatzen ari da...

Aberastasuna gero eta jende gutxiagok

pilatzen du, bidezkoa ez den banaketaz; honek desberdinkeria ekonomikoa eta genero desberdinkeria sorrarazten ditu: gure jendarteetan eta gure herrietan duintasunez bizi ahal izateko, enplegua, lan baldintza duinak, kalitateko zerbitzu publikoak edota prestazio sozialak eskuratzea galarazten du. Demokrazian bizi nahi duen edozein jendartek demokrazia horixe bera bermatu behar du produkzio harremanetan eta lanaren bitartez sortzen duen aberastasunaren banaketan.

Azken batez, ekosozialismoaz hitz egitean hondamendi honen sorburua non den kokatzen dugu: metaketa, kontsumismo eta merkatzen fetixismoaren dinamika hedagarrian oinarritzen den ekoizpen, birsortze, banaketa eta kontsumo sistema, hau da, kapitalismo heteropatriarkala. Sistema honek desberdinkeriak, bidegabekeria soziala, pobrezia eta bazterkeria areagotzen ditu. Honek guztiak zera adierazten digu, sistemaren eta zibilizazioaren krisi globala pairatzen ari garela eta sistema osoaren eraldaketa eta birformulazio ekonomiko, sozial eta politikoa beharrezkoa dela.

### Ze ondorio uste duzu atera behar duela LABek topaketa hauetatik?

Gertatzen ari dena honela ulertzeak kapital-lana binomioa beste hiru gatazka larrik osatzen dutela ondorioztatzen eraman behar gaitu: kapital-zaintza gatazka, kapital-baliabide natural gatazka eta kapital-komunitate gatazka. LABek horrela birpentsatu, ulertu eta praktika-eraman behar du.

Kapital-bizia gatazka (beste hiru gatazka horiek biltzen dituen) gure borroketarako ardatza izan behar da. Defendatzen dugun ereduak bizia iraunkortasunari eman behar dio lehen-tasuna. Bizia erdigunean kokatu eta pertsonen zein lurraren zaintzari lehen-tasuna eman behar dio. Zeren eta, balio hauek errespetatu ezean, ez baitugu etorkizunik izango, ez pertsona moduan, ez herri gisa. ■

